



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abagune 'egokiera, aukera ona'	«Ezer eskatzeko abagunerik eman gabe, emakumeak barrapetik <i>absenta</i> 85 zioen botila bat atera zuen...»	(67)
absenta 'edari alkohol askokoa'	«Neskak basokada bat absenta zerbitzatu zuen berehala.»	(72)
ahuspez 'ahoz behera'	«...gorputz txiki baina lirain bat geratu zen agerian, ahuspez .»	(21)
ajatu 'gastatua'	«Musikari segailak Martinezen kamiseta arruntari eta larruzko txamarra ajatuari erreparatu zien...»	(28)
aldaka 'gerri aldea'	«...bota zuen orduan Perrotek, urruntzen ari zen andre txikiaren aldaka mugimenduari begira...»	(134)
aldarte 'umorea'	«...bota zion inspektore beltzak zuzen eta artez, goitik behera so aldarte eskaseko aurpegieraz.»	(119)
apetatsu 'kapritxosoa, gurari bitxiak dituen'	«Baina hildakoa oso mutil apetatsua omen zen, bere galantasuna aprobeztatzen zuena gizon askorekin jolasean ibiltzeko.»	(130)
aria 'bakarlarietako pasarte'	«...harridura eragin zuen entzuleengan <i>Turandot</i> -eko "Nessum Dorma" ariaren lehenengo esaldiekin.»	(8)
arlote 'etxebakoa,	«...Martirien kaleaz bestaldeko semaforoan zegoen motosdun arlotea .»	(48)
arrabol-helizea 'zilindro formako helizea'	« <i>Le vieux mouche</i> mugiarazten zuen txopako arrabol -helizeak abiadura txikitua zuen Elbarrien Zubiaren azpitik pasatu ondoren...»	(7)
artean 'oraindik' (irag.)	«Biktimak, bestalde, alkandora gorri distiratsua erdizka loturik zeukan artean , baina gerritik behera biluzik zegoen.»	(54)
asaldatu 'kezkatu'	«—Lasai, Xagu —erantzun zion Martinezek, gehiegi asaldatu gabe—, gaur ez gatoz zure bila, zorionekoa zara.»	(71)
atoan 'berhala'	«...begiak erdi itxita zeuzkan, loguraz, baina atoan ireki zituen, izu aurpegiz, Martinezen musu orbaintsuarekin topo egitean.»	(32)
atxiki 'eutsi, oratu, mantendu'	«Zeuek ikusi baten bat Parisen atxikitzea komeni den, ahaztu gabe horrek arazoak sor ditzakeela.»	(17)
atxur 'mozkorra'	«Ziur morroiak kriston atxurra harrapatu, deskuiduan txopatik jausi eta helizeko arrabolak egin duela gainerakoa.»	(20)
babo 'leloa, papaua, tentela'	«Beitu zelako zoriontsu itxura daukaten turista babo horiek —esan zuen Martinezek.»	(105)
bare 'guruin baskularra' (bazo)	«Dena dela, indar handiko norbaitek erabili du arma, ze errai hutsak, barea , diafragma eta birika bat zeharkatu dizkio mutilari.»	(22)
bart 'aurreko gaua, joan den gaua'	«...baina jakin daiteke bart batera lorik egin duzuen? Konturatu zarete zelako piura daukazuen?»	(101)
begitan eduki 'amorrua hartuta ≠ begiko izan'	«...baina zuzendariaren kutunena zela iruditu zait eta, praktikan, denek zutela begitan .»	(58)
begitandu 'iruditu'	«...eta gizonei handik alde egiteko momentu aproposa izan zitekeela begitandu zitzaien.»	(100)
begitarte 'aurpegiko itxura'	«Nekatu aurpegia zeukaten biek ala biek, baina magrebtarrari gehiago nabarmentzen zitzaion begitartean .»	(57)
begiz jo 'erreparatu'	«Patxada hura, baina, berehala deuseztatu zitzaion kantariari, atea ireki eta bisitarien aurpegi desatseginak begiz jo zitueneko.»	(119)
behar izanean ere 'badaezpada behar izanez gero'	«Ez. Zabalik uzten dut, tripulazioko norbaitek zerbait behar izanean ere .»	(115)
belusezko 'herenilezkoa' (terciopelo)	« Belusezko txapel urdin argia zeukan buruan...»	(70)
berriketan 'hizketan, hitz eta pitz, berbaz'	«Haiek nahikoa zuten jan-edanak astiro dastatu edo zigarro bat patxadaz erretzearekin, berriketan edo, besterik ezean, oinezko-pasari begira.»	(11)



beste horrenbeste egin 'gauza bera egin'	«Jarraian zutitu egin ziren eta musikari errumaniarrak beste horrenbeste egin zuen.»	(30)
biek ala biek 'biek ere'	«Nekatu aurpegia zeukaten biek ala biek , baina magrebtarrari gehiago nabarmentzen zitzaion begitartean.»	(57)
birao 'madarikazioa, hitz gorria'	« Birao bat bota zuen eskua artean hartzean eta sukaldeko atea ireki zuen ostera ere.»	(43)
bistadizo 'begiratu arina'	«...ordu batzuk behar izan zituzten (...) ostera bat egin, inork ezer arrarorik sumatu ez zuela egiaztatu eta barkukideen datuei bistadizoa emateko.»	(19)
buruan erabili 'pentsatzen aritu'	«Iggogailuan bakarrik geratu orduko Martinezek buruan zerabilena bota zion Perroti...»	(31)
burusi 'manta'	« Burusi altxatu eta berehala erreparatu zioten bigarren biktimak ipurtaldean zeukan odol putzuari.»	(54)
desgogara 'gogo gabe'	«—Zure amak poltsan eramaten duen tresna? —bota zuen Perrotek, desgogara .»	(51)
deuseztatu 'desagertu, aldentu'	«Patxada hura, baina, berehala deuseztatu zitzaion kantariari, atea ireki eta bisitarien aurpegi desatseginak begiz jo zitueneko.»	(119)
dibagazio 'mintzagaitik aldentu'	«Edonola ere —alferreko dibagazioa moztu nahi izan zuen nagusiak—, berehalako autopsia agindu dut, gorpua eraman egin dute Morgera...»	(17)
durundi 'oihartzuna'	«Txaloen durundia apaldu zenean, kontzertu inprobisatu hartan tenor <i>spinto</i> baten ahotz boteretsua sortu zen pasaiariaren multzo handiaren erdialdetik.»	(8)
ekidin 'saihestu'	«...baina ez zuen ondo asmatu bihotzerainoko bidearekin, seguruenik huraxe baitzen bere helburua —kapitainak ezin izan zuen muzina ekidin —.»	(128)
emakume puska 'emakume ikusgarria, deigarria'	«—Enteratuta egoten den aspaldiko lagun bat, emakume puska , portugalدارra.»	(64)
erabakitsu 'ziurtasunez, erabaki irmoarekin'	«Inspektore magrebtarra zutitu egin zen eta errepede ertzera jo zuen, erabakitsu .»	(65)
erantsi 'gehitu'	«—Eta gainera — erantsi zuen Martinezek—, ia jokaldi biribila atera zitzaion ustekabean, ze hiltzaile posible bat agertu zen kasualitatez...»	(131)
erauzi 'errotik atera'	«Ez nuke buztana sartuko urdanga horren ahoan ezta zoratuta ere. Ziur haginkada batez erauziko lidakeela.»	(48)
errieta 'matraka, bronka'	«—Oraindik beste gauza bat dago! —gorputza jiratu zuten gizonak, etsita, azken errieta jasotzeko gertu—.»	(101)
etzidamu 'etzikoaren hurrengo eguna'	«—Koruko kideak, teoriarik, beste egun bitan geratzekoak ziren, etzidamu arte.»	(17)
ezgauza hutsa 'inutil osoa'	«—Ederra harrapatu nuen, bai, ezgauza hutsa! »	(42)
fado 'malenkonia'	«Angelak bere fado aurpegiarekin jarraitzen zuen.»	(75)
fado 'Portugaleko kanta melodikoa'	«—Inoiz entzun duzu fadorik ? —etsi zion Perrotek. —Inoiz bai.»	(75)
galantasun 'edertasuna, itxura ona'	«Baina hildakoa oso mutil apetatsua omen zen, bere galantasuna aprobetxatzen zuena gizon askorekin jolasean ibiltzeko.»	(130)
garbikuzi 'garbiketa arina'	« Garbikuzia gero goizean egingo dutela imajinatzen dut. Zer ba?»	(36)
geratu orduko 'geratuaz batera, bezain laster'	«Iggogailuan bakarrik geratu orduko Martinezek buruan zerabilena bota zion Perroti...»	(31)
gertu 'prest'	«—Oraindik beste gauza bat dago! —gorputza jiratu zuten gizonak, etsita, azken errieta jasotzeko gertu —.»	(101)
gogait-keinua 'asper imintzioa, higuin keinua'	«—Ez dakigu — gogait-keinua egin zuen kapitainak—, baina lehenengo begiratuan dauden aztarnek hilketa izan daitekeela adierazten dute.»	(16)



gorabehera 'alde batera utzita'	«Hitz-truke gordina gorabehera , ez zuen ematen mintzaideak haserretzeko bidean zeudenik.»	(13)
halandaze 'hortaz, beraz, horrela ba'	«Tira, kasua zuena da eta badakizue zelan jokatu honelakoetan, halandaze ...»	(18)
hausnarka 'gogoetatzen'	«...barruko gizonak denbora guztian isilik zihoazela, nor bere buruarekin hausnarka .»	(105)
hazi 'esperma'	«— Hazi arrastorik agertu da? — Ez, baina lubrifikatzailearena bai. Kondoia erabili omen zuten.»	(61)
hazpegi 'aurpegiara, aurpegiko fakzioak'	«...aho-moxorroa eta txanoa erantztean buru soildua, aurpegi hezurtsua eta hazpegi luze eta zorrotzak.»	(20)
hogeita hamataka 'hogeita hama... hor nonbait'	« Hogeita hamataka urte izango zituen.»	(33)
idorreria 'gorantzeko, libratzeko siku'	«— Ez hitz egin horrela nire lagunaz, eta ez larritu, ze idorreria dauka eta oraindik pixka bat berandutuko da.»	(72)
igande 'domeka'	« Igandea izan arren ia beteta etorri zen trena, eguna hirigunean ematera zihoazen beltzez gainezka.»	(46)
ingurumaria 'ingurua'	«Jendetsu zebilen Pigalle plazaren ingurumaria , uztailaren 14ko gauaren epeltasuna lagun.»	(10)
iskin egin 'libratu'	«Taberna baten aurretik pasatzean, kalean edaten zeuden gazte batzuei iskin egin nahirik, estropezu egin zuen...»	(85)
jendilaje 'jendaila, jende txarra'	«Horrela erlaxatu egiten gara eta solteago jarduten dugu zure gisako jendilajearekin .»	(73)
jilipolla 'pepelerdoa'	«— Eta inoiz pentsatu duzu zer ostiagatik ematen dugun hainbeste denbora honelako terrazetan jesarrita, gilipollaz inguraturik?»	(50)
jo zitueneko 'jo orduko, jo eta berehala'	«Patxada hura, baina, berehala deuseztatu zitzaion kantariari, atea ireki eta bisitarien aurpegi desatseginak begiz jo zitueneko .»	(119)
karel 'itsasontzien hegala, kaskoa'	«Berehala hurbildu zen jendea kareleraino , bere senetik aterata zegoen andreak zer ikusi ote zuen jakin nahian...»	(8)
kilikagarri 'erakargarria, deigarria'	«...prostituten helburua, ostera, bezero potentzialak erakartzea zen, eta ikuskizun kilikagarri eta paregabeak aginduz limurtzen zituzten.»	(10)
kokospekodun 'kokotsaren azpikoa,	«Hango hura zuria zen, kokospekoduna , ez handiegia baina bai oso zabala...»	(77)
lanbas 'trapuzko erratza' (fregona)	«Zaintzako agenteei garbitzailearen datuak hartu eta lanbasa laborategira bidaltzeko eskatu zieten.»	(117)
larrutan egin 'txortan egin, amodioa egin'	«— Buztana zenuen gauza dezente bakarra, eta orain larrutan egiten ere ahaztu zaizu!»	(42)
larrutu 'norbait erruki barik kritikatu'	«Ezin duzu imajinatu zelako gaitasuna daukaten batak bestea larrutzeko .»	(58)
limurtu 'konbentzitu'	«...prostituten helburua, ostera, bezero potentzialak erakartzea zen, eta ikuskizun kilikagarri eta paregabeak aginduz limurtzen zituzten.»	(10)
lur jota 'penatuta, animoa galduta'	« Lur jota nago zoritxarraren ondorioz.»	(33)
mamala 'lela, tontola'	«— Mamala halakoa! —bota zuen Martinezek, eta beste haginkada bat eman zion grekoari.»	(140)
mamurtu 'hausnartu' / mastekatu	«...mugitu barik polizia biak, laborategitik-eta jasotako azken informazioak mamurtzen .»	(63)
melatuta 'bustita, hondatuta' (pringatuta)	«— Ederra —esan zuen beltzak bere ahots grabeaz, maionesaz melatutako ezpainak zurrupatzen zituela.»	(12)
men egin 'obeditu, esana egin'	«...entzun berri zuten gomendioari men eginez , minutu gutxiren buruan kalean zeuden.»	(54)



mintzaide 'hizketa laguna, berbalaguna'	«Hitz-truke gordina gorabehera, ez zuen ematen mintzaideak haserretzeko bidean zeudenik.»	(13)
morge 'zerraldoen lekua'	«Edonola ere –alferreko dibagazioa moztu nahi izan zuen nagusiak–, berehalako autopsia agindu dut, gorpua eraman egin dute Morgera ...»	(17)
morroi 'tipoa, morroskoa'	«Ziur morroiak kriston atxurra harrapatu, deskuiduan txopatik jausi eta helizeko arrabolak egin duela gainerakoa.»	(20)
motosdun 'koletaduna'	«...Martirien kaleaz bestaldeko semaforoan zegoen motosdun arlotea.»	(48)
musu 'aurpegia'	«...begiak erdi itxita zeuzkan, loguraz, baina atoan ireki zituen, izu aurpegiz, Martinezen musu orbaintsuarekin topo egitean.»	(32)
muzin 'disgustu keinua'	«...baina ez zuen ondo asmatu bihotzerainoko bidearekin, seguruenik huraxe baitzen bere helburua –kapitainak ezin izan zuen muzina ekidin–.»	(128)
nagiak atera 'nagitasuna kentzeko besoak zabaltzea'	«Esnatu berriak oheburuaren kontra ezarri zuen bizkarra eta nagiak atera zituen, orro eginez.»	(42)
oinezko-pasa 'oinezkoen multzoa'	«Haiek nahikoa zuten jan-edanak astiro dastatu edo zigarro bat patxadaz erretzearekin, berriketan edo, besterik ezean, oinezko-pasari begira.»	(11)
orbaintsu 'orbainez betea' (zauri marka)	«...begiak erdi itxita zeuzkan, loguraz, baina atoan ireki zituen, izu aurpegiz, Martinezen musu orbaintsuarekin topo egitean.»	(32)
ostera 'berriz, ordea, haatik'	«...prostituten helburua, ostera , bezero potentzialak erakartzea zen, eta ikuskizun kilikagarri eta paregabeak aginduz limurtzen zituzten.»	(10)
ostera bat 'bueltatxo bat, ibilalditxo bat'	«...ordu batzuk behar izan zituzten (...) ostera bat egin, inork ezer arrarorik sumatu ez zuela egiaztatu eta barkukideen datuei bistadizoa emateko.»	(19)
otzantasun 'mantsotasuna, apaltasuna'	«Gizon biek obeditu zuten berehala, eta beltz dotoreenak, otzantasuna erakutsi nahian, txapel urdina ere erantzi zuen...»	(71)
pagotxa 'zorte ona, mauka'	«—Zergatik tokatzen zaizkigu beti guri pagotxarik goxoenak?»	(18)
piura 'itxura (txarra)'	«...baina jakin daiteke bart batere lorik egin duzuen? Konturatu zarete zelako piura daukazuen?»	(101)
popatik ematen du 'jasanezina gertatzen da'	«—Hiri honek popatik ematen du –kexatu zen Perrot...»	(50)
postura egin 'apustu egin'	«— Posturarik egin nahi?»	(20)
sakelako 'telefono mobila'	«...neska mulata baten argazkiaren ondoan zegoen sakelakoari erreparatu zion.»	(43)
sandia 'halako bat' (zutano)	«"Urliari sekulako pilota dio zuzendariak, eta beti rol onenak lortzen ditu", Sandia beti ipintzen dute eszenatokiaren aurrealdean...»	(58)
segail 'lerdena, ederra'	«Musikari segailak Martinezen kamiseta arruntari eta larruzko txamarra ajatuari erreparatu zien...»	(28)
sekulako pilota izan 'goxo-goxo tratatu'	«"Urliari sekulako pilota dio zuzendariak, eta beti rol onenak lortzen ditu", Sandia beti ipintzen dute eszenatokiaren aurrealdean...»	(58)
senetik aterata 'bere onetik aterata'	«Berehala hurbildu zen jendea kareleraino, bere senetik aterata zegoen andreak zer ikusi ote zuen jakin nahian...»	(8)
sentibera 'sentimenduzkoa'	«Zizpuru bat edo beste aditu zen, eta hara bildutako lagunek areago gozatu zuten kantariaren interpretazio sentiberarekin .»	(8)
sikeran 'behintzat, bederen'	«—Beitu alde onari. Zuk, sikeran , badaukazu nork zurrupatu dohainik!»	(48)
so egin 'begitu, begiratu, behatu'	«Hauek, ostera, elkarri egin zioten so , pozik, zerbait topatu zutela sumatuz.»	(80)
soildu 'ilegabea'	«...aho-moxorroa eta txanoa erantztean buru soildua , aurpegi hezurtsua eta hazpegi luze eta zorrotzak.»	(20)



sumatu 'igarri, nabaritu'	«Hauek, ostera, elkarri egin zioten so, pozik, zerbait topatu zutela sumatuz .»	(80)
talaian ipini 'tente plantarekin, hazkor jarri'	«...baina ez da heriotzaren arrazoia; ez arrazoi nagusia, behintzat – talaian ipini ziren inspektoreak.»	(21)
tortolos hotsa 'krakada hotsa'	«Atezainari tenkatu egin zitzaizkion lepoaldeko giharrak, eta tortolos hotsa atera zien bere atzamarrei.»	(66)
txahala bota 'oka egin'	«—Zurrutada batez edan behar da, badakizu. Eta ez du balio txahala botatzeak .»	(72)
tximeleta-begizta 'pajarita'	«...zapata distiratsuak, praka ondo lisatuak, zetazko alkandora, tximeleta-begizta ...»	(25)
txistorra 'zakila'	«—Ez nauzue atxilotuko turistei txistorra erakusteagatik?»	(109)
txopa 'itsasontzien atzealdea, popa'	« <i>Le vieux mouche</i> mugiarazten zuen txopako arrabol-helizeak abiadura txikitua zuen Elbarrien Zubiaren azpitik pasatu ondoren...»	(7)
ufako 'ufada, putzaldia'	«...eta euren nagusiak, kopetilea altzarazi zion ufako ozena bota ondoren, hitza hartu zuen berriz ere...»	(16)
urlia 'halako bat' (fulano)	«"Urliari sekulako pilota dio zuzendariak, eta beti rol onenak lortzen ditu", "Sandia beti ipintzen dute eszenatokiaren aurrealdean...»	(58)
uxatu 'aldendu, urrundu'	«...gure orduko hutsak konponbide erraza dauka –esan zuen azkenean Martinezek, errudun sentiera uxatu nahian...»	(111)
zakar 'latz, modu gogorrean,	«—Zakilez zulatuta –bota zuen inspektore beltzak, zakar –. Mutil hau marikoi praktikantea zela esan nahi digu Manixek.»	(23)
zapat 'aplastatua, lautua'	«...biak ziren gizon garaiak, baina beltza, sudur handi eta oso zapalekoa , bestea baino askoz sendoagoa zen burutik oinetaraino.»	(11)
zin egin 'agindu, hitz eman'	«...baina hortik zehar galdetuko duela zin egin dit.»	(76)
zirkinik ere ez 'mugimendu txikiena ere ez'	«Baina momentu hori heldu arte, esan dizudana: zirkinik ere ez dute egiten, hortxe egoten dira trankil-trankil.»	(139)
zizpuru 'hasperena, suspiria'	« Zizpuru bat edo beste aditu zen, eta hara bildutako lagunek areago gozatu zuten kantariaren interpretazio sentiberarekin.»	(8)
ziztu bizian 'ahalean, arin ere arin'	«Gero iheslariak ezkerretara jo eta Amelot kaletik jarraitu zuen ziztu bizian .»	(85)
zorioneko izan 'zortea izan'	«—Lasai, Xagu –erantzun zion Martinezek, gehiegi asaldatu gabe–, gaur ez gatoz zure bila, zorionekoa zara .»	(71)
zurrupatu 'xurgatu'	«—Beitu alde onari. Zuk, sikanan, badaukazu nork zurrupatu dohainik!»	(48)